



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2007/08 denboraldia

## 1 ZENBAKIDUN ZIRKULARRA

### **ESPAINIAKO FEDERAZIOAREN FUTBOLEKO ERREGE (RFEF) KOPA FASE AUTONOMIKOA**

Euskal Futbol Federazioaren esku utzi dituzte RFEF Koparen komunitate autonomo mailako fasea antolatzeko lanak; hori oinarri gisa hartuta eta, parte hartuko duten taldeen irizpideen arabera, aipatutako lehiaketarako ondorengo arauak ezarri dira:

#### **1. Talde parte hartzaileak**

Amorebieta S.D., Zarautz K.E..

#### **2. Lehiaketaren Sistema**

Joan-etorriko partiden kanporaketa sistemaren bidez garatuko da lehiaketa.

#### **3. Datak**

Finala: abuztuaren 29tik eta irailaren 5ra

#### **4. Jardunaldiak eta partiden ordutegiak**

Partidak jokatzeko jardunaldi ofizialak zirkular honetan ezarritakoak dira; talderen batek horiek aldatu nahiko balitu (aurreko egunera edo ondorengora), Euskal Federazioari jakinarazi beharko dio idatziz gutxienez zazpi egun lehenago eta aurkako taldearen onespena duela zehaztuz. Hark ere idatziz jakinarazi beharko du ados dagoela.

Talde antolatzaileek ezarriko dute partida hasteko ordua aurreko egunetan; ordutegi horrek iluntzeko 19:00ak eta 20:00ak artekoa izan beharko du, baina talderen batek ordutegi hori aldatu nahiko balu, aurkako taldearen onespena izan beharko luke eta ados dagoela idatziz jakinarazi beharko du.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

Ordutegi hori, partida jokatu den zelaiaz gain, Futboleko Euskal Federazioari jakinarazi beharko zaio partida jokatu baino gutxienez zazpi egun lehenago (tel: 94 4731900 – faxa: 94 4732221). Horrez gain, aurkako taldeari ere jakinarazi beharko dio.

### **5. Arbitrajeak**

Hirugarren Mailako arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

### **6. Jokalarien zerrenda**

Talde filialetatik edo mendekoetatik iritsitako jokalariak zerrendan sartzeari dagokionez, baimendutako gehieneko kopurua zortzi izango da.

### **7. Diziplinazko Araudia**

Lehiaketa hau RFEFren Araudiak zuzenduko du eta jazoera guztiak Hirugarren Mailako IV. Taldeko epaile bakarrak erabakiko ditu.

Txapelketa horri dagozkion eta gerta daitezkeen zigorrek konpartimentu estankoa osatuko dute eta ezingo dituzte beste txapelketa batzuetako zigorrak lehiaketa honetan bete ez eta alderantziz ere; zigor guztiak (arbitroari egindako erasoak izan ezik), txapelketa horretan bete beharko dira.

### **8. Saria**

Txapeldunak RFEFk emandako 3.005,06 €ko sariari lehiaketako arbitraje gastu guztiak kentzetik eratorritako zenbatekoa eskuratuko du.

Jakinarez dadin eta behar denerako jakinarazten da.

Bilbon, 2007eko abuztuaren 23an

  
JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General